

**URRUNTZEN GAITUZTEN GAUZA
GUZTIENGATIK**

Irati Gaztelumendi Zugiria, 15 urte

Oiartzun

Errudunak bekatua aitortzen duen bezala,
aitortu nizun nik gau hartan maite zintudala,
 agian izotzak izozten duen bezala
 zure muxuek izoztuta uzten nindutelako,
agian hostoek zuhaitza janzten duten bezala,
 nire gorputz biluzia janzten zenuelako,
agian zure laztanek nire azala leuntzen zutelako,
 agian horregatik,
 agian barruan ezkutatzea ia ezinezkoa zen
 sentipen bat zelako,
agian nire ametsez jabetzen zen printze urdina
 zinelako,
agian nire lorategian hazten hasi zen loretxo bat
 zinelako.

Gauak eguzkia baztertu eta ilargia lagun egiten
 duen bezala,
baztertu zenituen zuk besteak nire lagun egiteko,
gauetan izarrak zeruan agertzen diren moduan,

agertu zinen zu bakardadeari tokia lapurtzeko,
gauero itsas haizeak olatuei mugimedua
sorrarazten dieten bezala,
mugitu zenuen zuk zeru eta lur nirekin topo
egiteko,
gauetan azaltzen den mendi magaletako
ihintzaren moduan,
azaldu zinen zu nire bihotz osoa lapurtzeko.

Zergatik sentitzen dut harresi batek banatzen
gaituela?
Zergatik esaten didate ni zuria eta zu beltza zarela?
Zergatik sentitzen dut gure maitasuna debekatuta
dagoela?
Zergatik esaten didate mozorro batekin azaltzen
zarela?

Konturatzen naiz txori gehiegi direla nire burua
direnak,
soilik uste nuen bizitza arrosez beteriko bide
ederra zela,
kalea gurutzatu eta lagunek eskua zabalduko
zidatela,
eskerrak hor egin zarela, bestela...
Baina, hala ere, gauza ugari dira gure artean
daudenak,
beldurrak, ezusteak, gezurrak...
Badakit erle bat bezala eztiaren bila lorez lore
zoazela,
badakit gordetakoak asko izan direla,
badakit ere min handia egin garela,

baina gauza ugari izan dira ere niregatik egin
dituzunak.

Sarritan gustuko dut pentsatzea gorra naizela,
eta besteak ordea mutuak direla,
begiak itxi eta ni nirean murgiltzen naizela,
entzuten dudan bakarra nire bihotzaren taupadak
direla,
inork ezer esan gabe,
inork etsipenaren zulora bultzatu gabe,
inork tristuraren bidera zuzendu gabe,
inork isolamenduaren eskua zabaldu gabe,
inoren hitzik entzun gabe.

Beste askotan ordea,
maite ez nauzula pentsatzen dut,
zure bizitzan abentura bat gehiago besterik ez
naizela,
niregatik sentitzen duzuna gezurretakoa dela,
egunen batean nitaz aspertuko zarela,
egunen batean huts egite baten antzera,
gordeko nauzula zure akatsekin batera.
Beste batzuetan ordea,
gustuko duzun jolas bat besterik ez naizela
pentsatzen dut,
fitxa mugitu eta esnatzen naizela zure besoetan,
ohe miresgarriaren maindire beroetan,
ezkutatzeta ezinezkoa den pozarekin begietan,
dadoa bota eta uzten nauzula itota malkoetan,
urperatuta ibai sakonetan.

Erruduna eta biktima biak bat,
nire barnean indartzen doazen dudak oraindik
dauzkat,
beraz erabaki dut bientzat amaiera bat,
aurrera jarraitu aurretik, eskaintzea denbora bat,
oker jokatu al dut?
Erreka zuzen gurutzatu beharrean,
zeharka gurutzatu al dut?
Pausuak aurrera eman beharrean,
atzera eman al ditut?

Harria bota eta eskua gorde dut,
konturatu gabe bihotza mila zatitan egin dizut,
barka nazazu mintzen bazaitut,
baina nire barneko ezinegonei erantzun bat
bilatzeko,
hasieratik hasi behar dut,
barka nazazu mintzen bazaitut,
baina nire barnean sentitzen dudana inskribatzeko,
indarrak ateratzeko arima behar dut,
barkatu mintzen bazaitut,
baina batu gintuenak,
urruntzen ari gaitu.

Gaur zure begietan nabaria den pena hark
gogorki lur jota uzten nau
Gaur zure hitzetan islatzen duzun etsipen hark
zorrozki amorratzen nau
Gaur zure aurpegian nabaria den tristura hark
bertan behera uzten nau.

Etsipenaren atea jada zabaldu dizkidazu,
gorrotoari ere, paso egiten utzi diozu,
inongo erreparorik gabe, labainkada bat sartu
didazu,
zure ezpainetatik ateratzen ziren hitz goxoak
gutziz urratu dituzu,
eta gaur mesprezuz beteriko hitz faltsuak soilik
eskaintzen dizkidazu.

Lau haizeetara oihu egin nahiko nuke zure izena,
gauza asko baitira esan nahi dizkizudanak,
baina konturatu naiz jada berandu dela,
amodioaren sua jada itzali dela.
Hainbeste amets genituen, burua galdu nuela,
erralitatea ahaztu, eta itsutu egin nintzela.

Gaur, dudak dira nire pentsamenduez jabetzen
diren mamuak,
Gaur, nire gorputz barnean beldurrak besterik ez
dira gelditzen,
nire bihotzean ordea,
ia kabitzen ez diren saminak besterik ez ditut
sentitzen,
nire zainetan ordea,
ez da ia odolirik pasatzen,
desertu baten antzera doaz poliki-poliki lehortzen,
nire azala berriz,
lore baten antzera doa ximeltzen,
nire hezurak berriz,
indargabeturik doaz ahultzen.

Dedikatu nahi dizut nik olerki hau,
eskutitzean idatzi nizun olerki bera,
urratu nahi dut nik min hau,
nire bihotzean bizirik jarraitzen duen min bera,
zapuztu zenuen bihotzeko min bera,
amaitu nahi dut nik istorio hau,
batu gintuenak urrundu gintuen istorio bera.